

Internet konexiorako WIFI area berriak Zizur Nagusian

Zizur Nagusiko Udalak Kultur Etxeko eraikinean eta Gaztetxean herritarrak Interneten doan sartzeko "WIFI guneak" instalatu ditu.

Herritar guztiek Interneten sarbidea izatea helburu, Zizur Nagusiko Udalak Interneten doan eta libreki sartzeko esparru hau sortu du. Teknologia berriak herritarrengana hurbiltzeko erronka izateaz gainera Administrazio Elektronikoari buruzko 11/2007 Legea betetzeko bidean beste urrats bat da.

WIFI area hauetan herritarrak Internetera doan konekta daitezke.

WIFI esparru hau beharrezko seinalez horniturik dago zeinetan herritarrari Interneten sartzeko WIFI arean dagoela informatzen baitzaio.

WIFI guneak instalatzeko proiektua ANIMSAk (Asociación Navarra de Informática Municipal, S.A.) gauzatu du Nafarroako Gobernuaren Toki Administrazioako Departamentuko Kalitate eta Modernizaziorako Zerbitzuarekin elkarlanean.